

# BALIO PROPOSAMENA

Aste hauetan lantzen aritu garen proiektua aplikazio bat da. Arazodun umeei edota arduraturik dauden gurasoei lagunduko dien aplikazio bat izango da hain zuzen ere. Gure aplikazioari esker, irakasle partikularrak erraz bila ahal izango dituzte ziurtasun handiz.

Gure balioa aplikazio honena, kualitatiboa da, bezeroa produktu edo zerbitzu baten inguruan duen ikuspegiarekin dago lotuta, kasu horretan diseinua edota bezeroaren esperientzia bezalako faktoreak hartzen dira kontuan.

Hasieran ideia asko izan arren, aukeratzeko momentuan irizpide batzuk izan ditugu kontuan, azken batean oso garrantzitsua baita lehiakideengandik bereizten gaituen zerbait izatea, hau da onura bat lortzea, edota arazo edo behar bat konpontzea.

Jarraitu ditugun irizpideak asko izan dira: Lehenik eta behin, **nobedadea**; aurrez eskaini ez den zerbitzu bat eskaintzen baitugu. Antzeko aplikazioak ikusi izan direla egia da, baina ez zehazki gai honi lotutakoak. Gainera, honek erraztasuna emango digu gure proiektua egiteko eredu bat izango dugulako.

Ondoren, **prestazioa** hartu dugu kontuan, hau da, produktu edo zerbitzu baten erabilera hobetzeko asmoz, hori baita xede nagusia.

**Pertsonalizazioari** dagokionez, aplikazioaren bitartez bezeroaren beharrak asetuko ditugu.

Bezeroari **lana erraztea** edo hobetzeak esan nahi du gauzak errazago edota arinago esatea esan nahi du, eta gure proiektuarekin, bezeroari laguntza bilaketa errezten diegu kalitatea aukeratzeko aukera emanez. Gure kasuan, gurasoei informazioa errazago bilatzen laguntzen diegu. Hau egiaztatzeko galdetegia egin dugu irakaslean artean. Guztien erantzuna berdina izan da, guraso asko etortzen zaizkiela irakasle partikularrez galdezka eta beraiek informazioa emateko gaitasunik ez izatean, ezin izaten dituzte gurasoak lagundu,

**Eskuragarritasunak** bezeroari zerbitzu bat eskura ematea da, lana erraztearekin erlazionatuta dago.

Azkenik, **Erabilerraztasuna** izan behar du aplikazio hau, gure kasuan, bezeroari aplikazioko oinarriak argiak eta ulerterrazak izango dira, horregaitik diseinu sinplea izango du, edonork argiago ulertzeko.